

Ezkutuko mezuak

Betidanik gustatu izan zaio leihoaren ondoan esertzea. Oraingoan ere aurpegia kristalaren kontra du ia. Dena berria duenez, ezin begirik kendu dabil kanpoan abiada geldoan etorri bezain laster doazen inguruei.

Autobusak lehen hiru kilometroak egin orduko ohartu da eliza baten aurrean pasatzen diren bakoitzeko aurrean duen emakume zaharrak aitaren egiten duela. Baina ezkerraldean dagoen neska gazteak ere hala egiten duela erreparatzean harritu da gero.

Irlandan dabil Larraitx, ikasketak bukatu berri dituen honetan mundua ezagutzeko grinez gainezka. *Hostel*-ean eza-gutu duen bikoteak harreman libreak dituela jakiteak ez du inolaz ere eskandalizatu. Ez eta ezagutu orduko gorputzeko atal ezkutuenak piercingez beteta dituela bota dion harre-rako mutilak ere. Zirrara berezirik ez.

Ez da beldurtia, kalean hazitakoa baita. Ke, alkohol, apar eta dezibelio artean jositako askatasun gaztearen aitzindaria. Eta tsunami horretan murgilduta hainbat urtez biziraun ondoren, etxekoentzatitsu-itsuan ia ardi galdua bihurtua.

Masaila leihoaren kontra jarri du, enegarren aldiz ikusi baitu harrizko eliza ukiezina hurbiltzen. Ustekozko eraikin sakratuak leihoaren enkoadratsetik ihes egin orduko marmarka gurutzatzen zaizkion emakume horien esku eta buru arteko erretolikak ezin aguantatu dabil, agian begiak itxi eta nerabe zeneko irakasle nazkante hura gogoan oldartzen zaio-lako aldi oro. Itxuraz erlijioa irakatsi behar zien apaiza, baina sexuaz aritzea nahiago izaten zuena.

Sotana jantzita inoiz ikusi ote zuen ez du ongi gogoratzen. Baina ikasgelatik atera orduko mutilen komunetan barrena ibiltzen zela ongi daki.

-Zertarako sartzen ote da?- kezka pentsatu ohi zuen. Eran-tzuna sumatzen bazuen ere.

Klaseko batzuek ihes egiten zioten. Beste batzuek, berriz, begirune garbia zioten. Etxean entzundakoak sinetsita, agian. Ala kalean gutxi ikasitakoak, beharbada.

Gogoan du irakasle gogaikarria ondoko gelakoa zen Mirenekin hizketan sumatu zuen eguna. Jolas-garaia bukatuta, klaseko gehienak ikasgela barruan ziren. Ordurako, emakume zantzuak zituen Mirenek; hilekoarekin hasia, ziurrenik, al-daka zabalak eta bularralde erakargarria. Eta hortxe ikusi zuen Jesus Maria apaiza Mirenen jertseari kremailera-kirte-netik helduta, gora eta behera jolasean, bitartean burua ma-kurtu eta doinu goxoz hitz egiten zion bitartean. Larraitzek, gelarantz korrika zihoala, burua azkar batean jiratu eta hitzik gabeko begirada garratz izoztua luzatu zion apaizari. Ezin mugitu zegoen irakasle garaiaren atzaparretan neskato gai-

xoa. Armiarma sarean inozenteki harrapatua eta irten ezinik, edozein irteera aukerak eman ziezaiokeen protagonismo gabe, euli bihurtua.

Harez gero ezin burutik kendu izan zuen urte hartan, ezin lehen ilaran esertzea tokatu baitzitzaion Larraitxi. Astean behin, erlijio ikasgaia zuten bakoitzean, bere sudurretik ho-geita hamabost zentimetrora besazpia izerdi patsetan izango zuen alkandora zuri horitua jasan beharko zuela bazekien. Ez zen unerik okerreza izango, halere. Hirurogei minutu luze iraungo zuen klasearen bukaera iritsi baino lehen jakin ba-zekien gizon nazkagarri haren barrabilak bere mahaiaren er-tzarekin igurtzika ikusiko zituela. Madarikatua! Gorroto zuen gizon zitalaren aurrea zein itzalaren milimetro bakoitza.

Gainontzeko ikasgaietan ohikoa zuen hamaika galdera bo-tatzea eta gelan giroa sortzea. Soinean jantzi ohi zituen oihal beltzek eta alderantziz jarritako erratz moduko ile koloretsuek errebelde itxura ematen bazioten ere, oso ikasle azkarra zen. Gaintitu ez zuen ikasgai bakarra izan zen. Ikasmailan azter-keta errepikatzen behartutako bakarra.

Azterketa eguna iritsi zenean, liburutegira joateko esan zion. Atea ireki orduko ohartu zen; han ez zen apaiza besterik. Klasean bezalaxe lehen lerroan esertzeko eskatu zion. Oinak arrastaka poliki hurbildu zitzaion eta orri zuria aurpegi au-rrean jarri. Eta hortxe bota zion buruan Gaztetxeko dezibe-lioak baino ozenago mailuz kolpatzen geratu zitzaion galdera magnifikoa.

-Zer da zuretzat maitasuna? Zer sexua?

Azterketak iraun zuen minutu eta segundo haietan gizona esku batekin betaurrekoak gora eta bestearekin hankarte behera aritu zela bakarrik irudikatu dezake orain. Aulkian luze jarrita, erdi etzanda ia, hortz arteko erdizkako irribarre lizuna ingurura zabaltzen zuen bitartean.

Zer erantzun zuen ez daki. Lerro gutxi batzuk idatzi zituela orrialde bakarrean bai, aprobatazea nahikoa baitzuen. Bukatu zuenean, salto batean zutitu eta aterantz lehen jauzia egin zuela, irakasleak paper zatia eskura emateko agindu zion besoa luzatuz. Larraitzek, orduan zuen esku txikia esku zatarretik orriak neurtzen zituen 30 zentimetrora hurbildu zionean, bitan pentsatu gabe zuzen begiratu, indar hartu eta ezkutuan zuen zangoarekin ostiko egin zion. Eta baita bete-betean asmatu ere.

Etxean ezin izan zuen ezer esan. Ardi beltzatzen zuten. Apaiz-ek ez dituzte horrelakoak egiten, apaizek ez dituzte horrela-koak desio. Letania madarikatua.

Letaniaz bestaldera begiratzen ikasi zuen Larraitzek. Leihoa-ren ondoan esertzen ikasi zuen, eta aukeran lehen lerroan baino, bigarrenean hobe. Bere barre txikia islatuta atzeman du kristalean. Zuek ere irekiko dituzue begiak halako batean.

Arrate Arozena Mujika



Ilustrazioa **Kristina Fernandez**

Idazleari buruz...

Arrate Arozena Mujika. Bestelako hainbat lanbidetan aritu banaiz ere, sormenak eraldatzeko eta gozarazteko duen gaitasunak erakarri nau beti. Batez ere kantuan aritua, bide berriak topatzen nabil, azkenaldian bereziki idazten.